

IRRIEN LAGUNAK KIUBA



MARTINBER ETA LAGUN • Kultura

Webgunerako jantzi berria

Urte berria, itxura berria. Jantzi berri-berriekin estreinatuko du 2013. urtea Irrien Lagunak klubaren webgunerak: www.irrienlagunak.com atariak. Itxura eta diseinua txukundu, apaindu eta berritu egin dute, eta, orain, askoz «sinpleagoa» eta «erabiltzeko errazagoa» jarri dute erabiltzaileentzat. Dendan erosketaren bat egin nahi baduzue ere, errazago sartu ahal izango zarete orain.

Ohi bezala, hamaika txoko, kontu, proposamen eta albiste izango du atariak. Baina bada aldaketarik. Orain, esaterako, proba bakarra gáinditu beharko dute hileru erabiltzaileek; lehen sei proba berri izaten zituzten hilabete bakoitzeko. Probetan izandako aldaketaz gain, jolas berriak ere txertatu dituzte atarian.


Webgunean sartu eta parte hartzen duten irrizale guztien artean zozketak egingo dira, eta sariak banatuko dituzte. Webgunea sustatzeko kanpaina berezia egingo dute klubeko lagunek Gabonetan. Hala, izena ematen duten erabiltzaile guztien artean opari ederrak banatuko dituzte.

Aipatutako horiek aldaketa gutxi batzuk baino ez dira. Webgunearen jantzi eta eduki berriak ezaigutu nahi badituzue, sartu Irrienlagunak.com webgunera, eta egin irri!

DENBORA-PASAK

1. Labirintoa

Lurrerako bidaia antolatu dute martetarrek. Itzuleran, etxerako bidea topatu ezinik dabilta. **Zein bide hartu behar dute?**





Erantzunak

2.- +2-5 da egiten den eragiketa. Beraz, 14 da hurrengo zenbakia.

2. Zenbakiaren segida

Hainbat zenbaki hautatu ditu matematikako irakasleak. Ez edozein, ordea. **Begiratu zein eragiketa egiten diren, eta asmatu hurrengo zenbakia.**



Hamaika aukera euskaraz bizitzeko eta Gabonak Getxon gozatzeko

Olentzero kalejirak, Gabonak ludotekan eta gaztelekuan, Gabonak Kultur Etxeetan, Txan magoa, kale animazioa, Getxolandia, Izotz pista...



Informazioa: www.getxo.net

Horra Horra Algortako Olentzero Batzordea • Itxas Argia dantza taldea • Berantzagi dantza taldea • Zasi Eskola dantza taldea • Gobela ikastolako Txatxalín gurasoen elkarte • Neguriko Gobela taldea